



PRAIXKU BELAUNTZARAN SAN SEBASTIAN

ARRATSALDE ON, GUZTIOI:

GAUR EKITALDI HONETAN URNIETAR PRESTU BERRI BATEN IZENDAPENAK ELKARTU GAITU. IAZ, URNIETAR PRESTU IZENDAPENA SORTU, BERE ARAUDIA ONARTU ETA MARTXELI GORRITI ANDREARI ESKAINI GENIONEAN, BEREZIKI AZPIMARRATU NAHI IZAN GENUEN ZEIN MEREZIMENDU BETE BEHAR ZITUEN IZENDAPEN HAU JASOKO ZUENAK. BESTEAK BESTE, ZERA GENION: *SARITU BEHARREKO MEREZIMENDUAK URNIETAKO HERRIAREN ETA HERRITARREN ALDE ESKUZABALTASUNEZ ETA ALTRUISMOZ EGINDAKO LAN EDO ZERBITZUEI DAGOZKIENAK IZANGO DIRA*. MARTXELI GORRITIREN MEREZIMENDUAK BAT ZETOZEN, BETE-BETEAN, ESAN BERRI DUDANAREKIN, ETA BAITA, ZALANTZARIK GABE, AURTEN IZENDATU DUGUN URNIETARRARENAK ERE.

MUTIKO ZELARIK, EZ ZEN BEREHALA GELDIRIK JARRIKO ZEN HORIETAKOA, EZ; MUTIKO MUGITU XAMARRA ETA, ZERGATIK EZ, BIHURRIA. BAINA EZ GERA GAUR BERE BIHURRIKERIAK KONTATZERA ETORRI. ORAINGOAK BAINO GARAI ZAILAGOAK EZAGUTU ZITUEN GURE OMENDUAK, GARAI ZAILAGOAK MUTIKO IZATEKO, ETA GARAI ZAILAGOAK HAZI ETA GIZONTZEKO. GOIBURUKO ESKOLAN IBILI ZEN ETA HAUR ZELARIK GERRA ZIBILEKO GORABEHERA ITSUSIAK EZAGUTU ERE EZAGUTU ZITUEN. AITAK, AKASO, BASERRIKO LANETARAKO NAHIKO ZUKEEN, BAINA PRAIXKU BELAUNTZARAN KALEAK ERAKARTZEN ZUEN ETA IGELTSEKITZA ETA HARGINTZA IKASTEN HASI ZEN ONGI GAZTEA ZENEAN. IKASTEN HASI ETA LANEAN, NOSKI. ETA LANEAN HASI BEZAIN LASTER UMETAKO IZAERA BIHURRI ETA PIPER HURA LANERAKO SETA ETA JOERA BIZIA BIHURTU ZUEN.

URNIETAKO UDALETIK DEITU ZUTEN NOIZBAIT, SATURNINO LARBURU ALKATE ZELA, IGELTSEKITZA LAN BATZUK EGITEKO, ETA AURRERANTZEAN EZ ZUEN HERRIKO ETXEA UTZIKO, RAMON ATXAGAK HERRILANETAKO FUNTZIONARIO IZENDATU ZUELARIK. AZKAR ASKO ANTZEMAN ZUTEN UDALETXEAN ZER ENBORREKO EZPALA ZEN PRAIXKU, ETA HURA HERRIKO HAMAIKA LAN BURUTZEKO LOTU NAHI IZAN ZUTEN.

PRAIXKU BERAUNTZARANEN EZAUGARRI NAGUSIENETAKOA ZEN EGINKIZUN ZUEN LANAREKIN SETATU EGITEN ZELA, HASI ETA BUKA, ETA ONGI BUKATU ARTEKO ONIK EZ ZUEN IZATEN, BARRUAK ASTINTZEN ZIZKION LANAK ERDIZKA EDO ERDIPURDI UTZI BEHARRAK. OSO SAIATUA ETA ARDURATSUA, ESKU ONEKO LANGILEA, LASTER IZAN ZITUEN HERRILANETAKO EGINKIZUN NAGUSIAK BERE ESKU: IGELTSEKITZA, ITURGIN, EHORZLE EDO ENTERRADORE...

PRAIXKU BELAUNTZARANENTZAT EZ ZEGOEN ORDUTEGIRIK —HORI BERE ETXEKOEK ONGI JAKINGO DUTE—, EGUNSENTIA EDO GAU BETEA, IGANDEA EDO JAI EGUNA, LANA SUERTATZEN ZENEAN BERTAN IZANGO ZEN EGINKIZUNA BETETZEKO, ETA HORREGATIK JORNAL GEHIAGORIK EDO ORAINGO *ORDU EXTRARIK* KOBRATU GABE. HORI BERE EGINKIZUNA ZEN, ETA KITTO.



IA BERROGEI URTE ESKAINI ZION PRAIXKU BELAUNTZARANEK URNIETAKO HERRIARI, ARDURA OSOZ LAN EGINEZ, BERE BIZITZA HERRIAREN ZERBITZURA ESKAINIZ. INORK EZ DU EZAGUTZEN URNIETAKO LURRAZPIA ETA HERRIKO UR-BANAKETA SAREA PRAIXKU BELAUNTZARANEK BEZALA, EZ LEHEN ETA EZ ORAIN, BERAK BAITAUKA SARE OSOAREN PLANORIK ONENA BURUAN JOSITA.

GARAI BATEAN LAGUNARTEA ERE DEZENTE MATTE ZUEN PRAIXKUK, BAINA ZENBAT LAGUNARTEKO BAZKARI EDO AFARI EZ OTE ZUEN GALDU, ETXETIK ATERA ORDUKO ZUZENEAN BERARI ABISUA PASA ZIOTELAKO HALAKO ETXEAN URIK GABE ZIRELA EDO ANTZEKOREN BATEKIN. ZUZENEAN HERRITARREK PRAIXKURENGANA JOTZEN BAITZUTEN BESTE INORI ABISURIK EMAN GABE. HORIXE ZEN AZKARRENA ETA EGOKIENA. EDO KANPOSANTUKO LANAK BETE BEHAR ZIRENEAN, EDO BAKE-EPAILEAREKIN BATERA GORPU BAT JASOTZERA JOAN BEHAR ZENEAN... ZENBAT ORDU ESKAINIAK HUTSAREN TRUKE, HURA BERE LANA ZELAKO. ASKI ZEN HORI.

ETA JAIETAN, MATXURA EDO ABERIARIK EZ BAZEN, NOIZEAN BEHIN, BESTE ASKOK ADARRA, POSENTARRI EDO ATXULAR ALDEAN ITZULITXOA EGITEN ZUTEN BEZALAXE, PRAIXKU HOR IBILTZEN ZEN MENDIAN ETA ERREKETAN GORA URNIETAKO HERRIARENTZAKO ITURRI BERRIEN BILA, EDO UR-EMARIA ZUTENAK GARBITZEN...

LUZE EGIN GENEZAKE BERE MEREZIMENDUEN ZERRENDA, BAINA EZ DA BEHARREZKOA, PRAIXKU BELAUNTZARAN EZ BAITA EZKUTUAN IBILI BERE LANEAN, ONGI AGERIAN BAIZIK, ETA BERE LANEAN EZAGUTU DUTEN URNIETAR GUZTIEK DAKITE ZENBATERAINOKOA IZAN DEN BERE ESKUZABALTASUNA ETA ARDURA BERE LANAK BETETZEKO GARAIAN. BERE ESKARMENTUA ORAINDIK ERE BALIAGARRI ZAIE UDAL TEKNIKARIEI HAMABOST URTE DIREN ARREN JUBILATU ZELA.

LEHEN EZ ZEN PRAIXKU BEZALAKO FUNTZIONARI ASKORIK IZANGO EUSKAL HERRIETAN, ETA GAUR GAURKOZ, BATERE EZ. HORREGATIK DIOGU HALAKO GIZONA, HALAKO LANGILEA, EREDUGARRI GERTATZEN DELA FUNTZIO PUBLIKOARENTZAT.

HORREGATIK ESKAINI NAHI DIZUGU GAUR, PRAIXKU, IZENDAPEN HAU, SARI HAU, APALA ZU BEZALA, URNIETARRAK ZUREKIN ZORRETAN GAUDELAKOAN. HAR EZAZU GURE ESKER ONAREN ERAKUSGARRI. ZORIONAK.

URNIETA, 2009, IRAILAK 27.